



# Euzkadi, Nazioa Europan

2015ERAKO ARDURA ETA  
ERRONKA POLITIKOAK

---

VI. Batzar Nagusia  
2012ko urtarrilaren 14 eta 15a



# AURKIBIDEA

Orr.

Sarrera .....	3
<b>A) Euzkadin 2007 urtetik hona bizi izandako aldaketa .....</b>	<b>4</b>
1. Arazo ekonomikoak mundu global baten testuinguruan .....	6
2. Bakea, ETArek amaieratik ulertua, hurbilago .....	8
3. Eragile berriak erakunde mapan.....	9
4. Hala eta guztiz ere, autogobernu gehiago .....	11
<b>B) Herri gisa ditugun erronkak .....</b>	<b>12</b>
1. Krisialditik ateratzea. Eredu sozio-ekonomiko propioan aurrera eginez .....	12
2. Burujabetasun eta autogobernu gehiago .....	13
3. Herri-nazioa prozesu estrategiko baten bidez eginez .....	15
<b>C) Euzkadi , Nazioa Europan. 2015erako Proposamenak .....</b>	<b>17</b>
1. Bakea eta Elkartasuna .....	17
2. Eskubide historikoen eguneratzea, erabakitzeko eskubidearen instituzionalizatzea .....	20
3. Akordio irekia, XXI. Menderako akordioa .....	23
4. Herriarekiko konpromisoa duen Gobernu berreskuratzea .....	23
5. Enplegu eta Garapen Ekonomikorako lankidetzaren hitzarmena. Lan harremanetarako Euskal Sistema .....	24
6. Euzkadi munduan .....	26
7. Hurbiltasuna, komunikazioa, parte hartzea, gardentasuna eta ustelkeriaren kontrako borroka .....	27
<b>D) Geroa lantzen .....</b>	<b>28</b>

## SARRERA

1977 urtetik hona garatu izan diren txostenek EAJ-PNVri dotrina oinarri sendo eta ondo egokitua emateaz gain, erakunde politiko izateko kokapena ere eskaintzen diote. Zati batean, gizartean eta XIX. mende amaieran sorrera eman zion aberrian etengabe izandako eboluzio eta transformazioetara egokitu izanaren fruitu gisa etorri zaigu, garatu izan duen ekimen politikoaren helburua Euzkadiren askatasuna lortzea izan delarik.

2007ko Txosten Politikoan islatuta geratu zen moduan, EAJ-PNVren helburua da “Euskal Herria subjektu politiko gisa eta beronen erabakitzeko eskubidea aldarrikatzea. EAJ-PNVk Euzkadi erabakitzeko eskubidea duen subjektu politiko gisa aldarrikatzeko ekimena egingo du, Espainiar eta Frantziar estatuen menpeko denaren estatus politiko eta administratiboa gaindituta”.

Gure alderdiak Euskal Herriaren biziraupenaren aldeko borroka egin du inguruabar ekonomiko, sozial eta politiko oso desberdinetan. Orain ere, gure ekimen politikoa hurrengo lau urteotarako zehaztu behar dugun tenore honetan, garrantzikoena da bizitzea egokitu zaigun aldiaren analisi eta balorazioan asmatzea. Diagnosian ez okertzea da helburua, erdiesteko ditugun helburuetan asma dezagun.

Globalizazioa, nortasunen eraldaketa, emigrazioa, nazio Estatuen krisia, europar eraikuntzaren aurrerakada, munduko krisia, erakundeetako ahultze finantzarioa eta gazteentzako etorkizun itxaropenik eza, espektro ideologikoaren berregituratzeak, gobernagarritasun politikoaren konplexutasuna, ETAren amaiera eta Bakea lortzea dira besteak beste XXI. Mendeko Euzkadi irudikatzen eraman gaitzaketen faktoreak.

Erronka hauek erantzun zehatzak eskatzen dizkigute, testuinguru berri honetan egitasmo politikoak eraberritzea. Euzkadirentzat eta Euzkadietik bertatik eragindako erantzunak. Honako Agiri honetan biltzen ditugu EAJ-PNVk European Nazio gisa aurrera egiten jarraitzeko aurkezten dituen erantzunak.

## A) EUZKADIN 2007 URTETIK HONA BIZI IZANDAKO ALDAKETA

2007an Euzko Alderdi Jeltzaleak bere azken Batzar Orokorra ospatu zuen. Alderdikideek bertan onartu zituzten ehun urteko erakunde honek epe labur eta ertainera ezartzen zituen estrategia eta helburuak sendo markatzeko txostenak.

Txosten hauek dira 1977 urtetik hona onartu izan diren aurreko txostenen ondorio eta jarraipen, eta lehengo haien dotrina eta strategiaren indarra mantentzen dute; era berean mantentzen du, inguruko inguruabarrak aldatzen diren moduan eboluzionatzeko derrigorra duen erakundearen jarrera; gizartea, herria, eta XIX. mende amaieran sorrera bizi izan zuen aberria aldatu izan diren moduan.

Indarrean dagoen txosten politiko honetan, EAJ-PNVk Euskal Nazioaren aldarrikapen politiko eta juridikoa lortzeko asmoa ezartzen du, Euskal Herriak bere etorkizun politikoa erabakitzeko eskubide eta gaitasuna finkatzeko eta definitzeko markoan. Era berean, erakunde demokratikoen aldeko apustua azpimarratzen da, aurrera egiteko tresna politiko den aldetik; eta subjektu politikoak baldintza berdinekin aldarrikatzeko oinarrian indartutako akordio kultura defendatzen da, inolako inposizio edo betorik gabe. Zerumuga “berdinen arteko ituna da” mundu interdependentean politikaren praktikarako giltzarri gisa. 2007an onartutako printzipioek indarrean diraute EAJ-PNVren ekimen politikoaren oinarrian.

Bizi garen gizarte globalean, era guztietako aldaketa sozialak oso azkar produzitu dira eta produzitzen dira. Azken lau urteotan oso gertakari esanguratsuak bizi izan ditugu, eta gaur egungo Euzkadik, 2011 urte amaiera honetakoak hain zuzen, zerikusi handirik ez du duela bost urte eskas bizi genuenarekin.

EAJ-PNVren helburu politikoa gauzatzeko estrategia “denbora errealean” garatzen da, bizi dugun espazio eta denbora honetan; Alderdi hau beraz, kezkatuta dago une honetan dagoen egoera sozio-ekonomikoagatik, eta hiritarrek egunetik egunerako beharriazaneiei eta beharrian larriei erantzuna emateko lanean ari da, horretan oinarritzen baita Euskal Herriaren aberri eraikuntzarako xedea.

Zentzu honetan, EAJ-PNV oso adi dago azkenaldi honetan izan diren aldaketa sozialei erreparatzeko. Munduko krisialdi ekonomikoa sistema finantzarioaren usteltzearekin hasi zen eta mundu garatua ziurgabetasunez betetako zurrumbilo bilakatu du. Espekulazioaren burbuila apurtzearekin, globalizazioaren eta balore hierarkiaren aldaketaren eraginez, egoera ekonomiko latzean egotera eraman gaitu, langabezi tasa altuarekin, zor eta defizit tasa altuekin eta jarduera ekonomikoaren beherakada orokorrarekin. Eszenatoki horretan, Euzkadik urteotan landutako egitura industrial sendoa duen arren, ezin izan da nazioarteko joera handietatik kanpo geratu den isla gisa agertu.

Inguruabar honek bestelako herri errealitatea planteatzen digu. Indarrak ditu, baina baita adorez eta errealismoz landu beharko ditugun ahultasunak, lortutako tokiak sendo ditzagun eta krisialdi honetatik indartuta eta hobeto irteteko aukera emango diguten egokitzapen ekonomiko berriak topa ditzagun.

Arlo politikoan ere, asko izan dira bizi izandako aldaketak. Eredu instituzionalean, hauteskunde autonomikoak ondo irabazi genituen arren, "Alderdien Legearen" aplikazioan kalkulu politikoa erabili izanak eta horren aurrean izan den jarduerak, Eusko Legebiltzarreko tokiak murriztu direlarik, eta PSE-PP arteko aliantzak EAEn eragin zuten eusko abertzaleak Eusko Jaurlaritzaren ardura tokitik kanporatzea.

Nafarroan, EAJ-PNVk Nafarroa Bairekiko konpromisoa berretsi zuen, Nafarroatik eta Nafarroarentzat eginiko apustu estrategiko gisa, eta aldaketa politikorako motore gisa. Honek esparru politiko propioaren sendotzea suposatu du, nafartasunaren arkitektura politiko eta instituzionalaren oinarriak ahultzeko gaitasuna duena.

Konpromiso hau EA eta Aralar alderdiek zatitu dute eta gure babesarekin jarraitu du; talde independenteekin batera "Geroa Bai" koalizioan gauzatu da, Nafarroa Bairen helburu eta estrategia politikoaren oinordetza jaso duen taldea.

Alderdi konstituzionalistek "erdiko bidea" eraikitzeko asmoa izan dute, EAEko hainbat udaletan lehendik praktikatu izan zuten apustua hain zuzen, eta Nafarroan UPN-PSN akordio bidez gauzatu zena. Apustu honen oinarri bakarra da espainiar muturkeria konstituzionala, Euzkadi sistema konstituzionalera sartzea, Euskal Autonomi Erkidegoa Estatuako beste autonomien pare jartzeko. Alderdi politikoen legearekin batera, Estatuak euskal izate desberdina baliogabetzeko saiakera ikusi izan dugu.

Jakitun gara gainera, Ezker Abertzale tradizionalaren errehabilitazio politikoak atek zabaltzen dizkiola EAJ-PNVk Herri honetako indar abertzale nagusi gisa duen tokia ordezkatzeko helburua duen sentsibilitate politikoari, eta helburu estrategiko horretan ohiko bilakatu da alderdi konstituzionalistekin batera "pintza" fenomenoaren sortzea, Alderdi gisa martxan jarri ditugun jardun eta proposamen politikoak indargabetzeko xedez.

Errealitatean, martxan jarri zenetik bi urte igaro direlarik, eta gutxiengoan gobernatzen duen kolore bakarreko Eusko Jaurlaritzarekin, eta kanpoko babes teoriko nahikoa izan duen arren, gutxieneko babes sozialarekin, aukera honek erabateko porrota jaso du. Porrota ez da bere ezeraginkortasunetik eta izaera artifizialek bakarrik etorri, baizik eta euskal gizarteak berak duela gutxi ospatu izan diren Udal eta Foru Hauteskundeetan baliogabetu izan duelako.

Ezker Abertzale berria sartzean, hautestontziek bestelako mapa politikoa marraztu dute Hego-Euzkadin. Mapa anitz honetan, EAJ-PNVk toki batzuk galdu ditu. Mapa berri honek exijitzen du EAJ-PNVren praktika politikoaren muina izan denarekin jarraitzea, hau da, elkar onartzean oinarritutako akordioak bilatzea, eta eragile eta egitasmo politikoen aniztasuna eta guztien arteko egoera berdintasuna onartzeko beharra.

Hau esanda, baieztatu beharra dugu egitasmo politiko egonkorretarako eta etorkizunerako oinarri izango diren akordio zabalak bilatzeko ekimen etengabeak bat egin behar duela, halabeharrez, gehiengoaren erabakiak errespetatzea den printzipio demokratikoarekin, hori delako demokrazia batek demokrazia gisa funtzionatzeko oinarritzko baldintza.

Aldaketa politikoa eta aniztasunaren sendotzea Euzkadin gertatu dira beste eboluzio nabarmena eman delako: ETAREN bortxakeriaren ziklo bukaera. Bere jarduera armatua behin betiko amaitzea erabaki duen erakunde terroristaren azken urratsen aurrean aurkitzen gara, eta epe laburrean egiaztatu beharko du bere disoluzioa. Ziklo amaiera honek aurreikuspen berriak irekiko ditu –egin du jadanik– Euzkadin. Aldi berria hasi da.

Indarrean dirauen gatazka politikoa konpontzeko aukera irekitzen duen aldi berria. Euskal Nazioak, Euskal Herriaren talde nortasunaren adierazpidea den heinean, gure egitura politikoa propioa demokratikoki erabakitzeko eskubidea du. Egitura politikoko hori legitimatzeko subjektu bakarra, zazpi herrialdetan oinarritzen den Euskal Aberria da. Hori da EAJ-PNVren helburu nagusia.

EAJ-PNV Euskal Herriaren zerbitzura dagoen tresna da, baita Euzkadik Espainiar estatuarekin eta Frantziarekin duen gatazka politikoa konponbidea emateko xedearekin ere. Gatazka hau dator, estatu hauek ez dituztelako Euskal Nazioa eta bere eskubideak aitortzen, espainiar nazioaren eta frantziar nazioaren eskubideak onartzen dituzten neurri berean.

ETA, objektiboki, nazio eraikuntza eta Euzkadiren interesak kaltetu dituen eragilea izan da, eta da. ETAREN bortxakeriaren amaierak aukera bat zabaltzen du Euskal Herriak jauzi kualitatiboa ematerik izan dezan, eta EAJ-PNVk izan behar du estrategia honetarako tresna nagusia.

Erakunde gisa izan duen bizi luzean, Euzko Alderdi Jeltzaleak euskal gizartean bizi izan diren aldaketa guztietara egokitzen jakin du. Eta oraindik ere, egiten jarraituko du.

Honako agiri honek Herri gisa seguruenik izango ditugun erronka eta desfioak, eta gure Herri hau lideratzen jarraitu nahi duen erakunde politikoa gisa izango ditugunak aztertzen ditu. Erronka eta desfio hauei ekin behar izango diegu Euzkadiren urratsak Europar Nazioa den heinean bideratzeko, egitasmo estrategikoak sendotzeko, gure eskubideak onartuak izan daitezten, erabakitzeko eskubidea barne, eta eskubide hauek dagokion ordenamendu juridikoan sar daitezten.

Agiri honek azterketa bat planteatzen du, diagnostia eta Alderdiaren dotrinaren muinaren eguneratze estrategikoa, eta gauzatzeko biderik egokienak proposatzeko bilatzen duen norabidea; Batzar Nagusiaren amaieratik (2012ko urtarrila) eta hurrengo edizioaren hasierara arte, 2015a amaitu arterako aldia doan denbora tartean.

## **1.- Arazo ekonomikoak mundu global baten testuinguruan**

Krisi denborak bizi ditugu. Krisi honek agerian utzi du mundu globalean bizi garela. Globalizazioa ez da aukeratzen den zerbait. Gertakari geldiezina da, eta horrekin bizi beharko dugu. Egia da mehatxuak eragiten dizkigula (garatzeko bidean dauden herrialdeen aldetik lehiakortasun handiagoa eta produkzio gastu txikiagoak), baina aukerak ere ekartzen dizkigu (merkatu erraldoietara sartzeko).

Bizitzea tokatu zaigun aldia, zalantzarik gabe da oso latza. Ekonomiaren biziberritzearen zantzu batzuk antzematen diren arren, ahulak dira oraindik, eta ez dute behar besteko dinamismorik. Krisialdi honetako elementu batzuk, geratzeko etorri dira.

Gaur egungo finantza eta ekonomia arloko munduko krisialdi honek, hainbat alorretan gainditu ditu 1929ko hondamena eta 1973ko krisia. Beherakada garrantzitsuak eman dira nazioarteko produkzio eta merkataritzan, finantza zailtasun handiak daude, eta ondorengo lanpostuen galera. Herrialde batzuek ahalegin nabarmena egin dute zerga alorrean krisialdiari muga jartzeko; defizit handiak bizi dituzte, eta beraz, beren zorraren hazkunde esponenziala gertatzen da; honek zailtasun handiak eragiten dizkie maileguak eskuratzeko, merkatuetan beren "herri-arriskua" oso altua delako. Estatu batzuetako kontuen interbentzioa gertatu da eta beste batzuk oraindik daude interbenituak izateko arrisku larrian. Horrez gain, ezbai sozial eta politiko handia ematen da egitura politikoen ez-eraginkortasuna eta inoperantzia direla nagusi, merkatuen mehatxu espekulatiboetara aurre egiteko neurriak hartzeko ezgaitasuna antzematen baitaie.

EAE, krisialdia ez da Espainiar Estatuan bezain bortitza, baina, zalantzarik gabe, biztanleriaren zati handi bati eragiten dio. Arazoak ditugun arren, Hego-Euzkadiko egoera Espainiar Estatuak bizi zuena baino nabarmenki hobea da.

Hau ez da kasualitatez edo fenomeno natural arraro batez eragin. Gutxienez, hiru dira EAEko kasuan ematen diren faktoreak. Ekimen publikotik enpresa jarduera pribatua ahalbidetzen eta dinamizatzen lagundu duten faktoreak dira, hori delarik gure Erkidegoko egoera ekonomiko onaren protagonista.

Faktore hauetako lehena da laurogeita hamargarren hamarkadako politika industrial, edo baita Eusko Jaurlaritzaren jardueraren hasiera bera. Politika ekonomiko horri esker, gure Barne Produktu Gordinareneko % 30 mundu mailan irekitako sektore industrialari dagokio, eta beraz, ez dago espainiar ekonomiaren ahultasun estrukturalaren eta bere eskari gaitasun urriaren mende.

Era berean, gure ekonomia dibertsifikatzeko aukera baliatu da, turismoa eta industriari lotutako zerbitzuak sustatuta. Gure produkzio-egitura sendotu dute, eta gure hazkundera nabarmenki lagundu diote.

Bigarren tokian, ezberdintasun ekonomiko baikor hau dator, beste arrazoi batzuekin batera, EAJ-PNVren buruzagitzapean garatu diren politika publiko instituzionalen zorrotasun eta arduragatik. Politika hauei esker, inbertsio handiak egin izan dira azpiegituretan, garapenean eta berrikuntzan; era berean bermatu dira gizarte zerbitzuak, osasuna eta hezkuntza. Hau guztia egin da, kontu publiko orekatuak mantentzeko dugun beharrezana ahaztu gabe.

Eta, hirugarrenik, euskal aurrezki Kutxen (BBK, Kutxa eta Vital kutxak espainiar estatuko kaudimen zerrendako lehen tokietan daude) eta Euskal Kreditu Erakundearen kudeaketa egoki eta arduratsua egin delako; ondorioz gure herriak finantza babesa izan du enpresa eta familien egitasmo ekonomikoetarako, arrisku praktiketara sartu gabe.



Hiru faktore hauei esker, krisiak Hego-Euzkadin izan du Espainian baino eragin txikiagoa. Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE), jarduera ekonomikoa ez da neurri berean kaltetu, langabezia tasa baxuagotan mantentzen ari da, kontu publikoak egoera hobean daude (eta, are hobeto egongo ziren Eusko Jaurlaritza sozialistak azken bi urteotan garatu duen kudeatze lanagatik izango ez balitz); eta BBK, Kutxa eta Vital euskal kutzak Espainiar Estatuko kaudimen mailako lehen tokietan daude. Ez da gauza bera gertatzen Nafarroako Foru Erkidegoan, Nafarroako Aurrezki Kutxa, egitasmo propio eta ezberdinarekin, ez da gainerako euskal aurrezki kutzak bezain eraginkor agertu.

Esparru honetan, autogobernuaren tresnen balioa eta erabilpen zuzen eta eraginkorra aldarrikatu beharra dago, haiek gabe gure egoera gure ingurukoaren antzera egongo litzatekeelako. Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoak Hego-Euzkadin, bestelako esparru ekonomikoa mantentzea ahalbidetzen digute finantza osasunari dagokionez. Politika ekonomikorako oinarritzko tresna da, eta ondorio zuzen modura, esparru berezia dugu autogobernatzeko gaitasun politikoan, bereziki EAEn.

Hobeto gaude bai, baina ez gaude ondo. Gure enpresak egoera latzean daude, neurri batean barne eskaria murriztu delako, baina batez ere finantzaketa eskuratzeko zailtasunak daudelako. Horrek lanpostuen galera eragin du, industria bezalako sektore batzuetan galera hau ez da hain gogorra izan gure enpresak arduratsu jokatu dutelako, eta gure esportazioak martxa onean doazelako.

Zehatzago esanda, eraikuntzaren sektoreak eta honetatik eratorritako industriak aurrekaririk gabeko hondamena pairatu dute. Egoera honen ondoriorik latzena izan da langabeziak igo duela, eta horri lotuta doaz gizartetik at geratzeko arrisku sozialak.

Azken 30 urteotan, Ongizatearen Estatua defendatzeko eta garatzeko ekimena izan da gure autogobernuaren ikur nagusienetakoa, bereziki EAEn. Krisialdi ekonomikoak gure gizartean ahultasun egoerak zabaltzen dituen aldi honetan, beharrezko gertatzen da gure baliabideak zuzen kudeatzeko neurriak hartzea. EAJ-PNVren erronka da gaur eta biharko arreta eta babes sozial jasangarria sendotzea.

## **2.- Bakea, ETAREN amaieratik ulertua, hurbilago**

Inoiz baino hurbilago gaude Bakea lortzeko helburutik, horretarako ezinbesteko abiapuntua da ETAREN bortxazko jardueraren amaiera.

Euskal gizarteak ETAREN bortxakeria errefusatzeko erakutsi duen borondate irmoa ezinbesteko faktorea izan da ezker abertzalearen eta ETAREN beraren estrategia aldarazteko. Euskal gizartearen mezua argia da: bortxakeriak ez du lekurik. Euskal gizartearen presio honek, jardun polizial eta judizialarekin eta nazioarte mailako koordinazioari lotuta, bere fruituak eman ditu eta ETA nabarmenki ahuldu du, derrigortua izan delarik bere jardun armatuaren behin betiko amaiera aldarrikatzera.

Ezker abertzale historikoa urteotan bizi izan zen ETAREN buruzagitza politiko eta militarren menpean, eta orain onartu du bide armatuaren bideraezintasuna. Hala adierazi eta esan du

euskal gizartearen aurrean, eta hala ekin dio bere jarduera legezkotasun juridikora egokitzeari, honek hautestontzietan lehitzeko aukera eman diolarik. Jakin badakite “estrategia politiko-militarra” eta bortxakeriaren erabilpena gainbehera etorri direla, eta garai berriak etortzeko aldia dela, politika egiteko aldia. Urrats garrantzitsua eman dute, gehiago eman behar dituzte kultura demokratikoaren bidera atzera bueltarik gabe sar daitezen, bide hori baita helburu politikoak lortzeko bakarra.

Aldi politiko berria bizi dugu, non euskal gizarteak ETaren amaiera antzeman dezakeen. Gizarteak terrorismoa argi eta garbi arbuiatu izanak ezker abertzalea derrigortu du bide politiko eta demokratiko hutsetan oinarritutako estrategia planteatzera.

Hala eta guztiz ere, egiazko Bakearen eta adiskidetzaren lorpena ETaren desagerepenetik harago dago, ETA ez baita izan Euzkadin bortxakeria eragin duen subjektu bakarra. Hiritargo osoaren balore eta kultura demokratikoaren barneratzean sakondu beharra dago, bizikidetzaren demokratikoaren egiazko pegagogia jarrera, balore eta portaeretan gauzatuz.

Bakearen eta adiskidetzaren eraikuntzarako oinarriak dira hurkoaren sufrimendua onartzea eta biktima guztiei dagokien ordain moral eta materiala. ETaren amaiera euskal gizarte osoaren jarrera etikoan oinarritu behar da, eta ez bakarrik egitasmo politiko batek beste bati gailentzean. ETaren amaieraren inguruko kontakizuna interes politikoan oinarrituta eraikiko balitz, oinarri okerrak ezarriko liriteke bake eta adiskidetzarako etorkizuna eraikitzeko orduan. Aldi berrirako euskarriak gizarte osoak partekatuko duen jarrera etikoa suposatu behar du.

Espainiar demokraziak ere heldu beharra du jarrera, balore eta jokaeretan, egitasmo politiko guztiek egiazko islatzea izatea ahalbidetuz, eta islatze hau hiritarren borondatearen araberakoa izan dadin.

### **3.- Fragile berriak erakunde mapan**

Testuinguru instituzionalari dagokionez, ezker abertzale tradizionalak EA eta Alternatiba taldeekin koalizioa osatuta, indarrez sartu da udal eta foru erakundeetan. Estatuak bete gabe du oraindik ezker abertzalearen marka propioa legeztatzea, azken honek legezko izateko baldintza juridikoak bete dituelarik. Dena dela, bete gabe daude oraindik bizikidetzaren demokratikorako ezinbesteko diren baldintza politiko eta etikoetan aurrera egiteko urratsak.

Edozein kasutan, gogoratu beharra dago erakundeak ez daudela soilik aldarrikatzeko, eta are gutxiago hutsean aldarrikatzeko, baizik eta lan egiteko eta euskal hiritar guztien arazoak konpontzeko. Zerbitzu publikoa izateko espirituarekin eta sen onez. Hori bai dela garrantzitsua, batez ere erantzun serioak eskatzen dituen oraingo egoera ekonomikoan.

Beste aldean aurkitzen dugu PSE-PSN-PP-UPN-UPyD alderdiek osatzen duten “bloke konstituzionalista”. EAEn helburu eta bandera izan duten “Ajuria Enearen menderatzea” goiburua muturzalearekin, ekonomia arloan politikoki sortu den guztia ezabatzean oinarritutako politika ekonomiko ezerezarekin. “Estatu apustutzat” hartu den aukera hau,

historian gogoratuko da euskal gizartean babesik txikiena lortu zuen “itun politiko” gisa. Edo, bestela esanda, EAEko euskal hiritargoak okerren baloratu zuen alderdi arteko akordioa. PSE-PP ituna “Euzkadi, estatu arazotzat” eta “asimilatzeko zerbait” jotzean oinarritu den akordioa izan da eta beren lehen helburua zen EAJ-PNV gobernu instituzionaleko ardura esparruetatik kanporatzea eta Nafarroan UPN-PSN itunen ondorioz NaBai koalizioari aginte esparru horietarako sarrera eragozte. Lau urte galdu dira gure garapen eredua errotu ahal eta behar genuenean.

Nafarroaren esparruan, Nafarroa Bairekin egin zen proposamen berritzailea bere lehen fruituak ematen hasia zen, baina frustratua izan zen lehenengo EA Bilduren barruan sartu zenean, eta geroago Aralar taldea “Amaiur” koalizioan sartu zenean. Berkokapen honen aurrean, EAJ-PNV “Zabaltzen” taldean batu ziren independenteekin batera, jarraipena eman genion NaBairen espirituari “Geroa Bai” koalizioaren bidez. “Geroa Bai” nafar gizartearen aniztasuna aitortzean oinarritutako kultura politikoaren adierazpena da eta transbertsalitatea ardatz politiko bideratzaile gisa onartzea. Gure borondatean dago Nafarroan aldaketa politikoa bultzatzea hiritargoaren eta abertzaletasun zibiko eta instituzionalen bidez. Aldaketa honen oinarritzko baldintza da, nafar emakume eta gizonei baino ez dagokiela, beren estatus politikoa eta beren etorkizuna erabakitzea.

Iparraldeari dagokionez, gure egoera oraindik ere ahula izan arren, 2010eko martxoko hauteskunde erregionaletan lorturiko botoen % 6,6arekin aurrera pausoa egin dugu, historian izan ditugun emaitzarik onenak baitira zalantzarik gabe. Emaitza hauek, hala ere, Akitaniarako boto zenbaketan % 0,6a izanik, gutxieneko % 5etik urrun mantentzen gaituzte, eta ondorioz, ordezkartzarik gabe aurkitzen gara. 2011ko kantonamendu hauteskundeetan ere bototan gora egin genuen arren, oraindik 10 kantonamenduen erdian baino ezin izan dugu hautes zerrendarik aurkeztu. Ipar-Euzkadin agerikoa da EAJ-PNB markaren gainetik tokian tokiko hautes zerrendak osatzen dituzten gizon emakumeek sortzen duten konfiantza eta gertutasuna direla botoa erakartzeko dauzkagun tresnarik garrantzitsuenak. Pertsona hauen lan eskergari etekin politikoa ateratzeko, beharrezkoa da EAJ-PNB Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan erroturiko hautes marka bezala indartuz joatea; horrela, gure eragin-esparrua apurka-apurka hedatu eta EA-PNBren mezua Bidasoaz bestaldeko herri guztietara helarazteko.

Mapa politiko kolore anitz berri honek euskal gizartearen errealitatea eta aniztasuna islatzen du. Zalantzarik gabe, egoera berri honetan, EAJ-PNVk pisua galdu du. EAJ-PNVk inoiz baino gehiago berreskuratu behar ditu betiko bi argudio. Alde batetik, lan zintzo eta etengabearekin, ordezkartuta gauden erakunde bakoitzean, gobernuan zein oposizioan. Eta, bestetik, euskal gizarteari proposamen berriak eskainita, egitasmo berriak, ilusioa sortarazteko gaitasuna eraberrituko duten konpromiso berriak. EAJ-PNVk Euskal Herriaren balore eta helburuekin bat egiteko gaitasun handia du. Eta egiten jarraituko du, gobernutik zein oposiziotik erakutsi izan duen moduan. Gure konpromisoa Euzkadi da eta gure lan guztia eta gure konpromisoa eta egiten jakitea jartzen dira herri hau osatzen dugunon bizitza kalitatea eta ongizatea hobetzeko.

EAJ-PNVk Euzkadi eraikitzeke egitasmoa lideratu behar du, bere printzipio eta estrategiekin bat egingo duena, eta XXI. mendeko Euzkadi, munduan egongo den Europar Nazioa eraikitzen jarraitzeke proposamen eta ekimenak kontuan izanik. Lan hori planteatu izan dugu “Think Gaur Euskadi 2020” eta “Nafarroa 2020” hausnarketa prozesuetan eta “ADOS”

izenburuko agirian. Honek guztiak jarraipena izango du “Gaur Iparralde 2020” egitasmo berrian. Hausnarketa estrategiko honek euskararen etorkizunaren eta euskal departamentuaren indartzeari ekiteko oinarritzko zutabeak ezarri beharko ditu, herrialde bakoitzeko nazio eraikuntza, egoera eta beharrian ezberdinekin. Erantzun ezberdinak Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoaren beharrianetarako euskararen garapen eta sustapenerako, hezkuntzan eta ofizialtasunaren aldeko borrokan.

#### **4.- Hala eta guztiz ere, autogobernu gehiago**

Gernikako Estatutua onartu zenetik hona izan den autogobernuaren hiru hamarkadek aurrekaririk gabeko zedarrak izan dira instituzionalizatze eta garapenean, euskal historia moderno eta garaikidean. PSE-PP blokeak Eusko Jaurlaritzatik Estatutik PSOE eta PP alderdiek hamarkadatan ukatu duten Estatutuan hitzartutako eskumenak osatzeko ezer egin ez duten azken lau urteotan, autogobernua aurrera egitea lortu izan dugu.

Azken lau urteotan Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Gaietarako Kontseiluko (ECOFIN) lan taldetako ordezkariak lortu dugu, eta honek aukera ematen digu gure garapenerako motore diren EAEko Kontzertu Ekonomikoaren eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren esparru propioari eragiten dizkion erabakietan parte hartzeko.

Halaber, hamazazpi transferentzia berri lortu ditugu. Gernikako Autonomia Estatutuaren espiritua eta hitza errespetatuta lortu dugu, beti defendatu dugun moduan. Denak dira garrantzitsuak, baina beste batzuen artean azpimarratu behar dugu enplegurako politika eraginkorren eskumena; langabeei zuzendutako arreta hobetzeko aukeraz gain, prestakuntza eta lan munduratzeko marko propioa osatzeko aukera ematen digu, ezinbestekoa baita gure ekonomiaren lehiakortasunerako behar den etengabeko ikaskuntza ahalbidetzeko.

Horrez gain, kontratazioetarako pizgarriak ere eskuratu ditugu kuota sozialen hobari erregimenaren bidez; hau lagungarri gerta daiteke enpleguaren sorrera ahalbidetzeko.

Autogobernurako aurrerapen hauetako asko lortu ditugu EAJ-PNV izan delako Madrilen era iraunkorrean euskal interesak defendatu izan dituen alderdi abertzale bakarra. Beti egin dugun moduan, Euzkadiren interesen defentsan egin dugu, hemen, Estatuan, Europar Legebiltzarrean eta nazioarteko bestelako forotan.

Lortu den guztia izan da oso garrantzitsua, baina gogoratu beharra dago Estatuak Gernikako Autonomi Estatutua behin eta berriz urratzen zuela egiaztatu ondoren, Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Estatutu Politiko Berria onartu zuela. Eusko Legebiltzarrean gehiago absolutuz onartu zen proposamenak eskumen fondo batez gain bilatzen du Euzkadirako arau instituzional berria finkatzea, euskal gizarteak erabakitzeko duen eskubidea eta gaitasuna, eta giza eskubide guztiekiko errespetua diren printzipio ukaezinetan oinarrituta. Gernikako Estatutua ezinbesteko tresna izan da Euzkadiren nortasun politiko, sozial eta ekonomikorako. EAJ-PNVk euskal gizartearen gehiengoarekin batera, tresna hori gainditzea bilatzen dugu.

## B) HERRI GISA DITUGUN ERRONKAK

### **1.- Krisialditik ateratzea. Eredu sozio-ekonomiko propioan aurrera eginez**

Krisiak gogorki eragin dio Europari. Baina ez ditu herrialde guztiak berdin kaltetu. Globalizazioak eragindako aldaketarako eta dinamika demografiko eta sozialek sortutako aldaketetarako prestatzen aritu direnek hobeto ekin diote eta aurrera egiteko prest daude.

Agerian geratu da “Abiadura biko Europa” errealitate bat dela. Alde batean daude gauzak ondo egin dituzten estatuak, planifikatu duten eta erronkei ekin dieten estatuak; eta beste alde batetik, beste aldera begiratu dutenak, larregi zorpetu direnak eta orain arazotan daudenak.

Erronka hauetarako erantzuna ez da, agerikoa da hau, eredu greziarra edo Espainiar Estatuaren ereduak: hondamendira iritsi diren gizarte eta Administrazio publikoak, desoreka ekonomiko eta finantzakoak eta arazoei aurre egin ezinik dauden sistema politikoak. Gizarte hauek aurrean dituzte langabezi eta txirotasun urte ugari.

EAEn gure autogobernuak krisialdiaren ondorioak arintzen lagundu digu. Erakutsi egin dugu gure ereduak funtzionatu egiten duela, baina aurkezten zaizkigun aukerak baliatuko dituen eta Europar Batasunean eta nazioarteko erkidegoan toki protagonista erdiesten lagunduko digun eredu sozio-ekonomiko propioan sakondu beharra dugu.

Euskal gizarteak, Euzkadik, zaintzen eta sustatzen joan behar diren balore propioak ditu. Lana, esfortzua, solidariotasuna, ekintzailtza, elkarkidetzak, aukera berriak bilatzea, kalitatearen aldeko apustua, prestakuntza edo berrikuntza. Gizarte irabazlearen baloreak dira, etorkizunari begiratzen diona, oinarritzko duintasun mailak finkatzeko xedearekin.

Balore hauen artean, solidariotasunak bereziki sendotu beharreko aktiboa izan behar du. Solidariotasuna lana galdu dutenekin. Solidariotasuna pertsona nagusiekin. Solidariotasuna gure gazte askorekin, prestatzeko ahalegin handia egin ondoren, etorkizuna itxaropenik gabe ikusten dutelako. Eta solidariotasuna, eszenatoki horretan ere, seme alabak hazteko eta etxeko nagusiak zaintzeko ekarpen soziala egiten duten familiekin. Azken urteotan lortu izan den Gizarte Ongizate Estatu jasangarriak ondorio kaltegarriak ere ekarri ditu, batez ere belaunaldien arteko elkar ulertzea zailgotu delako. Aukeren gainetik bizitzeko moduak lehiakortasunean, solidariotasunean eta baloreen mailaketan eragin du.

Funtsean, industrian oinarritua den ekonomiaren arrakastarako, oraingo egoera ekonomikoan, beharrezkoa izango da antolaketa hobetzea, esportatzeko gaitasuna bultzatzea, kosteak egokitzea eta balio erantsiko produktu eta zerbitzuak garatzea, berrikuntza eta kalitatearen bidez, horiek baitira lehiakortasunaren faktore esanguratsuak.

Horretarako, ez dugu ahaztu behar, produktu eta zerbitzuak garatzeko helburua betetzeko, berrikuntzaren eta kalitatearen ezinbesteko baldintza dela emakume eta gizonak kualifikatzea, eredu sozioekonomiko propioaren ezaugarri den helburu estrategiko gisa.

## **2.- Burujabetasun eta autogobernu gehiago**

Gure helburuak erdiesteko, beharrezko dugu gero eta mendetasun maila txikiagoa izatea, independentzia lortu arte. Une bakoitzean, gure kabuz erantzuteko eta erabakitzeko gaitasun handiagoa, askatasun handiagoa. Gure tokia irabazi behar dugu, nazioarte mailan herri eta gizarte erreferente gisa.

Euzkadi egitasmo sozial, ekonomiko eta politiko propioa da. Gure kultura, hizkuntza eta nortasun propioak ditugu. Euskal hiritar guztien borondatean oinarritutako egitasmoa. Gu geu gara eta gu geu izan nahi dugu. Sendotu nahi dugun nortasuna partekatzen dugu. Burujabetasunean eta autogobernuan aurrera egiteko nahia, etorkizuna erabakitzeko eskubide eta gaitasunaren aldarriaren printzipio demokratikoak, eta giza eskubide guztiekiko errespetua bateratuko dituen herri egitasmo estrategikoan planteatzen da.

Gure Herriaren borondateak zilegi egiten ditu autogobernurako gogo eta eskubideak, baina ezin dugu ahaztu autogobernua ez dela hitz hutsala, baizik eta ongizate nahia, bizitza kalitaterako eta herrigintzarako asmoa. Hego Euzkadiko eraikuntza instituzionalak hazkunde ekonomikoa (giza garapena, Europako batz bestekoaren gaineko errenta maila) eta oinarritzko zerbitzu publiko eraginkorrak (osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, kultura, garraioa eta mugikortasuna) eskaini dizkigu, bereziki EAEn.

Ez gara bidez erratu. Gure nortasunaren indarrak eta euskal gizartearen interesak eraman gaitu autogobernuan sakontzera, hori delarik aurrerabidea, ongizatea eta bizitza kalitatea. Horregatik guztiagatik, gure nortasuna eta euskal gizartearen interes orokorra indartzen jarraitu beharra dugu.

Ez dugu, lortu dugun autogobernu estatusa ukatuko. Alderantziz, instituzionalki hazi nahi dugu, munduan dugun kokapena finkatzeko. Euzkadik ez du “trenaren azken bagoian” geratu nahi. Gure tokia “europar lokomotoran” dago, Europa ekonomiko, politiko, sozial eta kultural aurreratuenaren eraikuntzan. Honi guztiari gure hizkuntzaren eta kulturaren transbertsalitatea eta balio erantsia gaineratu behar diogu, euskal herri gisa garatzeko.

Testuinguru honetan, gaur egungo Espainiar estatua Hego-Euzkadiren garapenerako balazta handiago bilakatu da. Espainiar estatuko desoreka ekonomiko eta instituzionalek nazioarte mailako mesfidantza handia eragiten dute. Mesfidantza hau nazioarteko finantza merkatuetara luzatzen da, eta euskal enpresen “merkatu bezero” izan daitezkeenetara ere. Nazioarteko erreferente bilakatu behar dugu eta ez termino politikotan soilik, baizik eta termino sozial eta ekonomikotan ere, Euzkadik mundu mailako presentzia eta nortasun propioa izanik.

Hirugarren herri batzuetako inguruabarren mende lortzerik ez dugun garapen erritmoa lortu behar dugu. Eta honetarako ezinbesteko dugu burujabetasun printzipioa politikoki egituratzea, hau da, gure etorkizuna erabakitzeko gaitasuna. Ez dugu egiten aurkaketa politikoa nahi dugulako, baizik eta hiritarren interesa delako. Euskal hiritarrok mundu hobea nahi dugulako eta munduko gainerako nazioek dituzten eskubideak ditugulako. EAJ-PNVk bere planteamendu politiko propioetan oinarrituta, akordio zabalak lortzeko duen borondatea eta eraginkortasunez gauzatzeko behar diren foro eta erakundeetara eramateko.

Balore hauek defendatu eta sustatu behar ditugu. Eta horretarako, ez dago EAJ-PNV baino hoberik, betidanik defendatu izan ditu Euzkadiren interesak, ez bakarrik aldarri politikoagatik, baizik eta hiritargoaren interesa izan delako. EAJ-PNVk euskal nazio estrategia lideratu behar du, eta Herri egitasmorako edukien inguruko akordio estrategikoak bilatu behar ditu. Herri gisa lortu ditugun erakundeetatik eta bestelako foroetatik ere, oposiziotik ere. Beti gure Aberriaren zerbitzura.

Uniformitatean edo lortutako botere esparruetan geratzea, atzean geratzea da, datorkigun errealitatean kokapena galtzea. Egitura politiko propioa lortu nahi dugu gure gizarte nortasuna, ekonomikoa, kulturala eta politikoa babesteko eta garatzeko. Euskal hiritarrok hobeto bizi nahi dugu, enpleguan eta ongizatean ziur, lehen mailako gizarte zerbitzuekin. Indar ekonomikoarekin. Hori guztia lortzeko, ezinbestekoa da aldi berean garapen instituzionala lortzea, planteatutako erronkekin bat etorriko den gobernatzea.

Gure strategiaren helburua da Euzkadiren hazkundera ahalbidetzea, ikuspuntu politiko, sozial, ekonomiko zein instituzionala haztea; nazioarte esparruan Euzkadi nazio gisa aldarrikatzea suposatuko duen instituzionalizatzeko progresiboa lortzea. Hazkunde ekonomikoa eta hazkunde instituzionala dira garapen eta gizarte kohesio handiagoaren lorpena oinarritu behar dutenak. Gure alternatiba izan behar da, ondo banatutako aberastasuna lortzea, Europan gizarte kohesionatu eta kementsua lortzeko xedearekin. Burujabetasuna egunetik egunera gauzatzeko, lortutako esparruak finkatuta, eta urrats berriak emanda.

Euzkadi nazio zaharra da, berriztatu eta indartu egiten dena. Euzkadik Nazio izan behar du Europan. Bertan dauden besteekin batera, besteak beste Estonia edo Kroazia. Bidea eskatzen duten beste batzuekin batera, besteak beste Eskozia, Flandria edo Catalunya. Gure helburua jarri behar dugu “europar trenak” aurrera egiten duen tokian. “Burujabetasun politikoa” eta “burujabetasun ekonomikoa” uztartu behar ditugu. “Burujabetasun ekonomikoa” “protektionismo ekonomikoarekin” nahastu gabe, Euzkadi gero eta independenteagoa eta era berean gero eta mundura irekiagoa nahi eta behar dugulako.

Europa da mundura sartzeko dugun atea. Gure esparru geopolitiko eta ekonomiko naturala da, eta hortik begiratzen diegu munduko gainerako kontinenteei.

Europa eragiten digun errealitate propioa da. Eta, gero eta gehiago. Europar araudiaren %80a zuzenean aplikatzen da Estatuetan. Nortasun eta eskumen propioak dituzten Hego-Euzkadiko erkidego politikoak ezin dira europar erabaki esparrutik kanpo geratu. Horretan ere ez dugu subsidiario edo azpiko izan nahi, Ipar-Euzkadin ere ez, non toki gobernatzerako

eredu berria izatea bilatzen dugun, herrialde honen garapenerako behar diren eskumenak eta autonomia izango dituzten erakundeak izanda. Euskal Nazioa egitasmoak etorkizuna duelakoan gaude, eta bere kabuz dagokio etorkizun hau, Europar Batasunaren barruan gainerako Estatuena maila bereko toki eta aitortza bilatzen duen errealitatea delakoan.

Horregatik guztiagatik, harago begiratu beharra dugu. Euzkadiren nazioartetze ekonomiko, politiko eta kulturalerako egitasmoa garatu beharra dugu, gure eredu sozio-ekonomikotik abiatuta, gure erakunde politiko propioetatik eta Euskal Herriaren izaera kultural berezitua mantenduta.

Egitasmo honetan, Europa izan behar da lehen helmuga, baina eszenatoki global berrira iritsi behar da. Euzkadi, Nazioa Europan eta munduan. Euskal talde handiak dituztelako, ekonomikoki, arlo kulturalen edo sentimenduz lotuta gauden herriengandik hurbil. Era berean, harreman urriagoa izanik ere, gure enpresentzako aukera diren herrietatik hurbil. Haiengana, ekimen biziz hurbildu beharra dugu.

Egiten dakien Herria gara, gauzak ondo egiteko ahalegina egiten duena. Horregatik, gure marka propioa sortu, sustatu eta kokatu beharra dugu, "Euzkadi marka". Euskal Herria balore eta nortasun propio, ezberdin, anitzekin ordezkaturiko duena, mundura irekia, gure Herrian era baikorrean eragingo duena eta herri eta kultura arteko nazioarteko eszenatokiko elkarrizketan parte hartzeko lagunduko duena. Honek ere barnean hartzen du harremanak instituzionalizatzea "euskara lurraldea" oinarri harturik, euskal erkidegoa munduan kokatzen duen kultur-lurralde partekatua. Gaur egun ezagun diren muga politikoak gaindituko dituen lurraldea, eta borondatez euskaldun sentituko diren eta euskaldun gisa aldarrikatuko diren guztiak hartuko dituena.

### **3.- Herri-nazioa prozesu estrategiko baten bidez eginez**

Lehiakortasunaren eta nazioartetzearen erronkei ekiteko, harik eta euskal gizarterik elkartuena behar dugu. Era berean, nazioartetzeak eta lehiakor izan behar dugun sektoreen inguruko erabakiek gure gizartea kohesionatzea ahalbidetuko dute. Modu eraginkorrean funtzionatuko duen gizartea, eta egiatan bertan izan nahi duten guztien batura izango dena, bere eskubideak onartuta, eta autogobernu sistema eraginkorrenekin. Euskal nazioa berrabiatze sozial eta ekonomiko berrirako.

Euskal hiritarren autogobernu sistema berri hau, ADOS ekimenaren markoan emandako urratsetan esan dugun moduan, aukera demokratiko guztiekiko begirunean oinarritzea behar dugu, akordiorako espirituan oinarritutako aukera demokratikoekiko errespetuan. Euskal bizikidetzaren demokratikorako esparrua indartu eta finkatu beharra dugu.

Bakea da errezeta honetarako lehen oinarritzeko osagaia. Gaurko ongizate maila bortxazko testuinguruan lortu ahal izan badugu, aldi berri honetan, ETAREN bortxakeriaren amaiera berrabiatze berrirako aukera izatea lortu behar dugu. Gure Herriaren borondate askean oinarri harturik, gure bidezko asmo politikoak errealitate egin daitezten.



Horretarako, autogobernu gehiagoz gain, parte hartze politikoan eta hiritarren parte hartzean, gobernatze prozesuen modernizazioan oinarritutako kultura demokratikoa bultzatu behar dugu. Gure erakundeetako gobernuan gardentasunik eta zorroztasunik handienarekin, hiritar eta eragile sozial eta ekonomikoentzako parte hartze esparruak ahalbidetuta. EAJ-PNV ezin da bultzada honetatik kanpo geratu, esparru honetan buru eta eredu izan behar baitu.

Parte hartzea ez ezik, lankidetzeta eta ardurakidetasuna behar ditugu. Inkomunikazio politikoak eta etengabeko aurkaketak herri gisa aurrera egiteko behar ditugun bitartekoak ahultzen ditu.

Ezinbesteko gertatzen da, akordioetara iristea, eta ezberdintasunak arauzko testuinguru partekatuan kudeatzea ahalbidetuko duen giro politikoa eraikitzea. Herrigintzarako dinamika elikatuko duen lankidetzeta, gure erakundeak indartzearen bidez.

Euzkadiren etorkizunerako edozein egitasmo partekatuk beharko du legezkatze sozial zein politikoa. Alderdi eta gizarte eragile arteko akordioetatik harago, Euzkadi euskal nazioaren instituzionalizatzeko globalerako egitasmoaren inguruko gizarte adostasun maila euskal gizartearen adierazpenak baldintzatuko du. Euskal gizarteak duen egiteko ukaezina da bere desioak hautestontzietan adierazi ahal izatekoa, euskal gizartearen instituzionalizatzearen zilegitasuna hiritarengan baitago. Euzkadirentzako estatus politiko berriaren inguruko erabakia, beti egongo da Euskal Herriaren eskuetan, lehen instantzia batean EAEko eta Nafarroako Foru Erkidegoko euskal hiritarren eskuetan; eta baita Iparraldeko hiritargoaren eskuetan ere.

Estatus politiko berri honek gure erronka handiei konponbideak eskaintzeko zerbitzura egon behar du: gure lehiakortasuna hobetzea enplegua sortzeko, lehen mailako hezkuntza eta etengabeko prestakuntza lortzea, osasun sistema jasangarria eta kalitatezkoa antolatzea, eta kohesio eta bizikidetzarako gizarte politika aurreratuak garatzea. Hau guztia, garapen jasangarrirako eredutik, garapen instituzionalak oinarrituta eta gobernatze lan ona gauzatzeko.

Lortu dugunetik abiatuta, Euzkadi, nortasunen nazioa eraikitzea. Borondateek osatutako nazioa. Gure geroaren jabe izateko eskubidea. Eredu propioa izateko eskubidea abangoardiako gizarte izan dezagun, eta horretan euskal hiritar guztiek aurrera begiratzeko, aurrera egiteko eta hazteko aukera izan dezagun.

## C) EUKADI, NAZIOA EUROAPAN. 2015erako PROPOSAMENAK

Erronka berriek erantzun zehatzak eskatzen dituzte, nazio gisa aurrera egiten jarraitzeko.

2015eko zerumuga oso garrantzitsua da Euzkadirentzat. Aurreikuspenen arabera, ziklo ekonomikoa aldatuta egongo da, eta neurri egokiak hartzen badira, lana sortzen egongo gara. Seguruenik, betiko bukatuta egongo da ETAREN bortxakeriaren gaitza. Maila politikoan ere, eszenatoki berrian egotea espero dugu, Euskal Nazioaren eraikuntzan gora. Zerumuga eta helburu horrekin, EAJ-PNVk proposamen zehatz batzuk planteatzen ditu Nazio modura hazteko aukera emango digutenak, eta aurkitzen garen eszenatoki globalean, hiritargoaren beharriaztarako erantzunak hobetzerik izan dezagun.

### **1.- Bakea eta Elkartasuna**

Bakea lortzea gizartearen eskakizuna da. Gure gizarteak ezin du ulertu alderdi politikoek gai “txikien” inguruko akordioak bilatzen duten bitartean, alderantziz nola hain berekoi agertzen diren interes “gorenari” dagokionean: Bakea.

Bakea lortzeko desio aitorrezin beste prezio daude, baina onura partikularrak lortzeko baino ez. Denon bakea ez da eragile politiko bakoitzak lortuko dituen onuren aurrerakinaren ostean lortzen den bakea. Bakea kalkulu politikoaren objektu da eta izan da, eta batzuetan negozio-kalkuluetakoa ere.

Bakea lehenetsi behar da. Denon bakearen premisa eta baldintza da beldurrik ez izatea, eta ondorio eta sari gisa terrorearen amaiera eta normaltasun demokratikoa. Ezinezko gertatuko da denok irabaztea, bakoitzak berea “irabaztean” tematzen bada, ETAK bere erabakiak ezker abertzaleak lortuko duen arrakasta edo onuren arabera neurtzen baditu. Edo bestela, unean uneko Gobernuak edo oposizioko alderdiak bere garaipen goseak bultzatuta, bortxakeriaren amaiera beren helburu politikotarako bultzada gisa erabili nahi badute. Hauek jarrera biak ez dira onargarriak.

Aldi honen aurrekaria, gizartea helburu politikoetarako bortxakeriaren praktika eta justifikazioaren deslegitimazioan irmo agertu ondoren, eta erakundeekiko konpromisoa duen abertzaletasunak zorrotasun osoz agertzean, 2009ko azaroan gertatu zen ezker abertzale tradizionalak “Mitchell printzipioak”, hau da, bide politiko eta demokratiko hutsak bereganatzeko adierazpena egin zuenean.

Brusela eta Gernikan berretsitako eta ETAREN presoek bereganatutako adierazpen honen barruan ETARI eskatzen zaio “su eten behin betikoa, alde bakarrekoa eta nazioarteko erkidegoak egiazta dezakeena, bere bortxazko jarduerari uzteko borondatearen adierazpen gisa”.

Ezein gogoetaren aurrean, prozesu honen gakoa da elkarrizketa eta bortxakeria arteko bateraezintasuna. Horregatik, bizikidetzaren baketze eta normalizaziorako aldiaren onarpenerako, bortxazko jardueraren behin betiko amaiera eman behar da lehenik. Horrela ba, elkarrizketa eta negoziaketa ez dira baketze prozesuaren zerbitzura egongo, baizik eta bortxazko jardueraren amaieraren borondate egiaztagarriaren ondorioa izango da.

ETAk bazterrean geratu behar du, bere jardun militarra erabat utzi behar du; eta kanpotik, instituzionalki abiatutako eta berretsitako egiaztapenaren bidez ziurtatuta.

Era berean, ETAk erreferente politiko izateari utzi behar dio. Ez da soilik armak isiltzea, baizik eta prozesuan erreferentziazko protagonista izateari ere utzi behar dio. Akordio zibilak baino ez du behin betiko bakea finkatuko.

Aurreikuspen horiek beteta, aldi politiko berriak bortxakeria bertan behera uztearen baliozkotasunaren inguruko irizpideak eta balorazioak partekatzea exijituko digu. Gure balorazioa, alderdi politikoen artean bortxakeria bertan behera uztearen inguruan adostutako definizioarekin, eta bere egiazkotasunaren egiaztapen partekatuarekin lotuko dugu.

EAJ-PNVk ezinbesteko jotzen du, Euzkadik exijitzen duen arduraz jokatzeko ordua dela, eta xede horretarako honako irizpide hauek ezartzen ditu:

⇒ ***Bakeak berme guztizko prozesua exijitzen du***

Erabakitze elementu bat dago bortxakeria erabiltzen duenari dagokiona, hau da, ETAk bere jarduerari amaiera emateko borondatea.

Alderdi politiko eta gizarte eragileek erabaki honekin batera doazen baldintza sozial, politiko eta legalak sortzen lagundu ahal dugu. Horregatik, bortxakeriaren amaierari ezin zaio larritasun eta asmo onen nahasmenarekin ekin.

EAJ-PNVk ezin du bermerik gabeko prozesua onartu eta ETA exijitzen dio euskal hiritarrok askatasunez har ditzakegun erabakien onarpena eta baldintzarik gabeko begirunea.

⇒ ***Elkarrizketa eta Negoziaketa***

Elkarrizketa erabakitzaileerako prozesurako ezinbesteko baldintza da ETAREN aldetik bortxakeriaren behin betiko amaiera; era berean, Espainiar Estatuaren aldetik Giza Eskubideen inguruan estatu barruan zein nazioartean indarrean dagoen legeria onartu behar

du. Testuinguru honetan, elkarrizketa bortxakeria eta terrorismoaren amaiera absolutua ekarriko duen negoziaketa teknikorako prozesura abiatu beharra dago.

⇒ ***Ezker abertzale tradizionala ETArengandik banatzea***

Ezker abertzale tradizionalak erakunde demokratiko eta autonomo gisa birformulatzeko, beharrezkoa izango du marko juridikoak gainerako erakunde politikoei ezartzen dieten onarpen eta legezketasuna, eskubide eta derrigor ber-berekin, talde politiko batek sistema demokratiko batean dituen eskubide zibil guztiak emanda. Aitortze honek euskal gizartearen berregituratze soziologiko eta elektorala ez ezik, ez bai politikoak gizarte eta erakunde normalizaziorako bidea hartzea ahalbidetuko du.

⇒ ***Legebiltzarraren baliozkotzea jaso duen prozesua***

Diputatuen Kongresuak 2005eko maiatzean, PP izan ezik Kongresuko legebiltzar talde guztiek onartutako ebazpenak Ajuria Eneako 1988ko Akordioko 10. puntua hitzez hitz hartzen zuen, eta zera ezartzen zen *“Indarkeriari elkarrizketa-bidez azkena emateko, horrekikoak egiteko benetako gogoan eta hori sinistarazteko moduko zalantzapiderik gabeko jarreratan oinarrituz, behar bezalako aukerarik izaten bada, Erresumako horretarako gai diren agintarien eta izuekintza bazter uztea erabakitzen dutenen arteko harreman-bideen alde gaude, beti ere politika-mailako gorabeherak herritarren nahiaren ordezkotza dutenen bidez soilik konponbideratu behar direlako utzi ezineko demokrazia zko sortarauari begirune izanez, noski....”*.

Atzoko moduan, gaur EAJ-PNVk printzipio hauek mantentzen ditu, eta aurreko prozesuetatik jaso dugun eskarmentuak zera pentsatzera eramaten gaitu: ETAREN bortxazko jarduera behin betiko uztea egiaztatzeko egingo den elkarrizketa teknikorako edozein ekimenenek *legebiltzarraren gaikuntza jaso beharko du, legebiltzarraren kontrola eta legebiltzarraren berrespena. Legebiltzarrak, zeinetan herriaren ordezkari zeta naturala gauzatzen den, izango du elkarrizketaren arrakasta bermatzeko ahalmena edo beronen porrota beste ordainik gabe bereganatzekoa.*

⇒ ***Espetxe politika eta gizarteratzea Bake eta Elkartasunaren zerbitzura***

Demokrazia egoeran, pertsona presoek botere publikoek inguruabar guztietan errespetatu eta babestu behar dituzten oinarrizko eskubideak zor zaizkie. Zuzenbide Estatuaren espetxe politikoaren ezaugarria da beti gizarteratzera norabidetuta dagoela. Zentzu honetan, Zigor Kodearen aplikazio malgua, zigorrak pertsona presoek etxebizitzetatik hurbileko espetxetan betetzea, senide eta lagunak bake eta adiskidetzarako eragiletzat jotzea, eta inola ere, *zeharerruduntzat* ez hartzea dira, inoiz baino gehiago, baketzearen zerbitzura dauden ezinbesteko elementuak.

Horrek ez du inolako aurre-baldintzarik behar. Beraz, espetxe politikari behin betiko norabide adostu, dinamiko eta malgua emateko ordua iritsi da. Horregatik EAJ-PNVk erronka

honekin duen konpromisoa berresten dugu. Edozein kasutan, egina egon beharko zukeen zerbait delakoan gaude, Eusko Legebiltzarrean 1997an eta Diputatuen Kongresuan 1998an onartutako ebazpenekin bat etorriz.

⇒ ***Baketik Elkartasunerako bidea***

Bidezko bakea nahi eta bilatzen dugu, euskal gizarteak bortxazko hainbeste urteren buruan beharrezko duen zerbait delako. Baina, ez dugu ahaztu behar azken helburua Elkartasuna dela, adiskidetzeta. Biktimek pairatutako sufrimendu eta mina denek aitortu behar dute salbuespenik gabe, esku zabaltasunez eta ikuspegi zabalez. Horregatik, Baketik Elkartasunera doan bide zaila diseinatu eta lideratu beharko dugu. Beste herri batzuek lortu dute. Guk ere egin behar dugu.

⇒ ***Ondorioa***

Eszenatoki horretan aurrera egiten den neurrian, eta baketze eta normalizazio aukera sendatzeko urratsak ematen diren heinean, Euzko Alderdi Jeltzaleak gainerako alderdi politiko eta erakundeekin ekimenak proposatu eta gauzatuko ditu, helburu horiek erdiesteko xedez.

## **2.- Eskubide Historikoen eguneratzea, erabakitzeko eskubidea instituzionalizatzea**

Azken urteotan asko esan eta idatzi da “euskal gatazka” izenez deitu denaren izaera eta ezaugarrien inguruan. Talde eta buruzagi politiko batzuek gatazka bera ukatu dute. Planteamendua guztiz ukatzen dute, eta jarraian adierazten dute EAEko aldaketak Erkidegoan indarrean dagoen Autonomia Estatuak baino herri babes zabalagoa izan beharko lukeela. Azaldu beharrik ez daude Nafarroaren inguruan mantentzen diren jarrera itxiak.

Dena dela, zalantzarik ez dago euskal auzi nazionala, egon badela.

Hasiera data zehatza eman ahal diogu euskal gatazka politikoari: Foruen indargabetzea. Era berean, esparru zehatza eman ahal dugu gatazka honen amaiera ezartzeko: foruen berreskuratze osoa, edo oraingo terminologia erabiltzen badugu, euskal hiritarren Eskubide Historikoen eguneratzea, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea eta gaitasuna aitortuta.

Urteak daramatzagu ezadostasun politiko honetan. Ez gara ados jartzeko gai izan, baina errealitatea zintzotasunez eta objetibotasunez aitortu ahal dugu. Gure gizarteko gehiengoaren borondatearen argazkiak lau adierazletan laburtzen du errealitate hori:

- Euskal gizarteak erabateko Bakea exijitzen du. Bizikidetzaren bortxakeriarik gabeko egoeran eta pertsona guztien giza eskubide eta askatasunak errespetatzearen oinarrian eraiki behar da.
- Euskal gizarteak demokratikoa da. Arazo politikoen tratamendua elkarrizketan, negoziaketan, akordioetan eta printzipio demokratikoetan oinarrituko da.
- Euskal gizarteak Herria osatzen du, bere borondatez Nazioetat jotzen duena. Behin eta berriz eta gehiengo batez adierazi du, erabakitzeko eskubidearen bidez errespetatu behar den nazio definiziorako borondatea.
- Euskal gizarteak anitza da. Nortasun politiko, kultural eta nazional ezberdinek osatzen dute, eta elkar errespetatu behar dute elkarrizketa eta akordio bilaketa konpromiso etengabearen bidez. Edozein kasutan, euskara da euskal hiritarren hizkuntza, minorizatuta dago eta EAJ-PNVk betidanik egin du egoera hori gainditzeko ahalegina, eta ekimen horretan jarraituko du gainditzeko lortu arte.

Aniztasun politikoa berreskuratuta eta helburu politikoko bortxakeria behin betiko desagertuta, Euskal Herriaren borondate politikoa “eguneratzeko” oinarri zabaleko adostasuna artikulatzeko bidea eman behar du.

Nafarroako Foru Erkidegoak osatzen duen erabaki esparruari dagokionez, eta bere indar politikoen korrelazio ezberdinaz jabetuta, ez diogu uko egiten, eszenatoki berri honetan, subjektu politiko egiazkoa osatzen duen herrialde honetan, askatasun osoz bertako hiritarrek egoki joko duten erregimen politikoa erabakitzeko posibilitateari. EAJ-PNVk Nafarroako talde politikoa den heinean, EA Erekin eta Iparraldeko Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa herrialdeekin lotzen gaituzten lotura historiko, kultural, hizkuntzazkoak eta sozialak baliatuta, erabaki esparruan adostuko denarekiko errespetutik abiatuko den marko juridiko konfederala ezartzeko ekimena lideratuko du.

Elkarrizketa definitzeko oinarritzko tresna gisa hartuko duen akordioa, eta gehiengoaren eta gutxiengoaren eskubideak errespetatuko dituen formulazio juridiko-politikoaren ekarriko duena.

Ekintza bidezko alde bakartasunetik eta “menpekotasunetik”, alde bikotasunera eta zuzenbidezko “berdintasuneko” harremanera eramango gaituen akordiora.

Gure asmoa zera da, “lege zaharra” “lege berria” eguneratzea. Berdinen arteko itunean eta esparru politikoko adostasunean, alde bikotasunean ea esparru juridikoko bermeetan oinarrituko den estatus berria.

Akordio berri hau Euzkadiko bizikidetzaren politikorako aldi berrirako lortzea da lehentasuna, eta honako konpromisoak bereganatzea suposatzen du:

- Printzipio demokratiko oinarritzkoenak hiritargoaren gehiengoaren borondateari arauzko balore esanguratsuak ematea exijitzen duela partekatzea, honek berarekin dakar eragile politiko eta instituzionalek behar besteko egokitzapenak egin beharko dituztela borondate horren adierazpen argiari erantzuna emateko.

- Euskal gizartearen bere etorkizunaz erabakitze eta kontsultatua izateko, eta demokratikoki adierazitako borondatea errespetatua izateko eskubide eta gaitasuna duen Herria osatzen duela partekatzea.
- Euskal gizartearen nortasun anitzek osatua dela partekatzea, eta eszenatoki demokratiko batean elkar errespetatzeko abiapuntutik elkarrekin bizi behar dutela.
- Gatazkak konpontzeko metodoa elkarriketan, negoziaketan, indar politikoen arteko akordio zabalaren, eta halarik izan ezean gizartearen gehiengoaren jarreraren oinarritzen dela partekatzea.
- Prozesu demokratiko orok kanporatzea baino, barneratzea eskatzen duela; baldintza berdintasuna eskatzen du, hau da, mehatxurik gabe eta tradizio politiko guztiek beren legezko adierazpena izatea.

Loiolako Akordioa izan zatekeen haren oinarrietan ezartzen zen legez, herriko sentsibiltate politiko ezberdinen arteko akordio barnerakoa behar dugu, bizikidetzaren demokratikoa finkatzeko eta era zabalean partekatuko dugun marko juridiko-politiko berria izan dezagun, egonkortasun eszenatokia bermatuko diguna. Akordio politiko partekatua, garatua eta alderdi politikoei aberastua, eskumena duten erakundeetan tramitatua, eta euskal hiritargoak onartua izango dena. Oinarri zabaleko akordioak baldintza berdintasuna hartu behar du barnean, edonolako egitasmo politikoak gauzatu ahal izateko; hori da praktikan gertatzen ez dena, PP edo PSOE alderdiek beren nazioa konstituzionalizatuta duten bitartean, EAJ-PNVk eta gainerako aukerak ez dute berena konstituzionalizatzeko eskubiderik.

Autogobernuak ziklo aldaketa ahalbidetu du. Terrorismoari uko egitea da jardun politiko askerako (alderdien jokoak eta hauen arteko aliantzak) eta instituzionalerako (governatze praktikoa eta alternantzia) *sine qua non* baldintza. Hiritarrak eragile politikoak direla jabetu izanak Herriaren modernizazioa eragin du, ziklo berri hau ahalbidetu du.

Zentzu guztietan hazi gara, euskal gizarteak hazten jarraitu nahi du eta eskatzen du. Hau da momentua estatus berri batetara sar gaitzen, eta borondate politikoa badugu, hori lortzeko tresna juridiko-politikoak daude, 2004an Euskadirako Estatutu Politiko Berriaren tramitazioarekin egiaztatuta geratu zen moduan. Espainiar parlamentuak errefusatu egin zuen, bere arauak errespetatu barik.

Estatuak euskal nazio auziari azken hiru hamarkadetatik hona ezarri dion blokeoa gaindituko duen estatusa. Prozesu konstituziogiletik hasita, euskal abertzaletasuna kanpoan geratu zen. Horren ostean, LOAParen espiritua ezarri zen eta ondorengo atzerapena eman zen Gernikako Estatutuaren betepen osoan. Jarraian, ez zen aintzat hartu Eusko Legebiltzarrak 1990 urtean onartu zuen autodeterminazio eskubidearen aldeko Ebazpena. Eta amaitzeko, ez zen tramiterako onartu Eusko Legebiltzarrak 2004 urtean gehiengo batez onartu zuen Euskadirako Estatutu Politiko Berrirako proposamena eta azken egunotan ez da onartu 2011ko irailean konstituzioa erreformatzeko aurkeztu den proposamena.

Ezinbestekoa da Akordio berria, errealtate nazio anitzaren onarpena eskatuko duena, egitura nazio anitzeko Estatu barruan, Euskal Nazioa politikoki eta juridikoki aitortzea suposatuko duena, Euskal Herriak bere etorkizuna era aske eta demokratikoki erabakitze duen eskubide eta gaitasuna baieztatuta.

Aldi berria hasten dugu, non euskal hiritargoaren erabakia eta borondatea izango den ibilbide demokratikoaren hasiera eta amaiera. EAJ-PNV politika arloko buruzagitza estrategikoa egitera deitua izan da, Euzkadi indartzeko, Akordio berriaren lorpenaren aldeko apustua egiteko. Erabakitzeko eskubidea gizarte demokratiko eta askearen adierazle gisa instituzionalizatuko duen Akordioa.

### **3.- Akordio irekia, XXI. menderako akordioa**

Bilatzen dugun akordioa integratzailea izango da. Hiritargoak gehiengo batez onetsiko duena izango da. Akordio eguneratua, elkar aitortzea suposatuko duena, baldintza berdintasunean, eta edozein egitasmo politikoren gauzatzeko posibilitatea onartuko duena, euskal hiritargoak demokratikoki eta bere erabaki askez adierazitako borondatean oinarrituta.

Euskal Herria, nazio kulturala eta kultura ezberdinen arragoa, euskararen bidez, kultura, tradizio, instituzio juridiko eta foralen bidez identifikatzen da; bere presentzia eta adierazpena EAEn, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldean aurkitzen du.

Euskal Herria, Euskal Nazioa osatzen duten hiritarren multzoa da. Akordio bat da, marko juridiko, ekonomiko, instituzional eta politikoarekiko atxikimendua aitortu, instituzionalizatu eta ahalbidetuko duena, hiritargoaren gehiengoak hala erabakitzen badu. Hiritargoak era aske eta demokratikoan adierazitako borondatearekiko errespetuaren onarpena barnean hartuko duen akordioa.

Edozein kasutan, lurraldeen batura hori gertatu ezean, Akordio honek lankidetzarako bide instituzionalak bermatu beharko ditu eta euskararen erkidegoa osatzen duten oinarritzko lotune kulturei eusteko. Zentzu honetan, lan egiten jarraituko dugu euskara ofiziala izan dadin Nafarroan eta Iparraldean, eta EAEn dagoen minorizazio soziala gainditzeko.

### **4.- Herriarekiko konpromisoa duen Gobernuaren berreskuratzea**

EAJ-PNVk baieztatu egiten du erakunde demokratikoetako alternantzia politikoa normaltasun eta heldutasun seinalea dela egoera edo ziklo politiko bakoitzean bere ordezkariak indartzen duen gizartearen. Euzko Alderdi Jeltzaleak aitortu egiten du gainditzeko zaila izan zela Eusko Jaurlaritzatik at geratu izana. Zail gertatu zen kanporatze haren inguruan izan ziren inguruabarrengatik eta oinarri izan zituzten azpijoko legalengatik.

Denborak aurrera egin duela eta estrategia politiko haren ezeraginkortasuna egiaztatuta, Nafarroako Foru Erkidegoan ere agerian geratu den moduan, Euzko Alderdi Jeltzaleak epe laburrerako helburu gisa planteatzen du EAEn buruzagitza instituzionala berreskuratzea. Lehentasuna beraz, hori ahalbidetzeko herri babes sozial eta politikoa eskuratzea da.

Zentzu horretan, Euzko Alderdi Jeltzaleak euskal gizartearen gehiengoak onartuko duen profil propioa ezartzeko konpromisoa hartzen du. "Gestio" edo gaitasun teknikoaren balioa



ez ezik, Euzkadiren autogobernua eta nazio eta gizarte eraikuntzaren ikuspegi propioa ere identifikatuko dituen profila. Euskal gizartearen borondateari lotutako autogobernua ulertzen dugu, aprioritasun dogmatikorik gabe, gizartean konplizitate zabalak bilatuta eta Estatuan zein Europar Batasunean adimenez jokatuaz, esparru hauetan hitzartzeko gaitasuna lortzeko xedez.

Autonomi Erkidegoan lidergo instituzionala berreskuratzea, Euzkadi osora zabaldua, baina ez asmo hegemonikoarekin, baizik eta euskal gizartearen aurrean herriarekin konpromisoa duen eta bere buruarekin zorrotza den Gobernu berriaren adierazpen modura.

Aurreko huts egiteetatik ikasita, gure herrirako aldi eta espazio berrirako deialdia egiteko babesa jasoko duen Gobernu berria –ADOS egitasmoan garatutako proposamenarekin bat eginik– eta ahal den akordiorik zabal eta handienetik, Euzkadirako bizikidetzeta hitzarmen berria egiteko helburuarekin.

## **5.- Enplegu eta Garapen Ekonomikorako Lankidetzeta Hitzarmena.** **Lan Harremanetarako Euskal Sistema**

Biziberritze ekonomiko eta enpleguaren sorkuntzarako, ezinbestekoa da sektore sozial guztien arteko lankidetzeta Itun zabala.

Hauxe da gure proposamena. Ardatz nagusi gisa, enpleguaren sorrera hazkunde handiagoa ahalbidetuko duen euskal ekonomia lehiakorragotik abiatutako ituna. Itun honek erakunde guztiak (Gobernuak, Foru Aldundiak eta Udalak) eta gizarte eragileak hartu beharko ditu; enpleguaren egonkortasunean aurrera egiteko helburua izan beharko du, lehiakortasunean aurrera egitea eragin beharko du enplegua sortzea eta garapen ekonomiko-soziala ahalbidetzeko.

Itun honen oinarrian egon beharko du lan harremanetarako sistema propioak. Euskal eragile ekonomiko-sozialek hemen adostea behar dugu, gure errealitate sozial eta ekonomiko propioaren testuinguruari begiratuta.

Garapen ekonomikoa, hazkunde soziala eta nazio eraikuntza bateratuko dituen akordioa.

Bide bi daude, berandutu gabe esku hartzeko: lehenengoa, enplegu politika eraginkor eta pasiboen eguneratzea; eta, bigarrena, negoziaketa kolektiborako sistemaren funtzionamenduaren birformulazioa.

Bide hauen artean lehenak pertsona aktiboen enplearritasuna hobetzeko helburua bete ez duten politika eraginkorrak, eta sistema ekonomiko osoaren produktibotasuna eguneratzea exijitzen du.

EAErako eskumen hau, EAJ-PNVk Madrilen gidatu duen negoziaketari esker lortua izan delarik, aukera handia da gure gizartearen zati handi batentzat, enpresa, hezkuntza eta lan munduen arteko ikuspegi integratzailetik bideratzen bada.

Prestakuntza, orientabide eta lan munduratzeko sistema sendoa eratzeko apustua egin beharko dugu, enpresen benetako eskarrietatik abiatuta, eta bertan pertsona aktiboek, prestakuntza zentroek eta lan bitartekaritzarako eragileek parte hartuko dutelarik. Langilea merkatuaren beharrianetara egokitzea ahalbidetuko duen sistema, inolako koste pertsonal edo sozialik eragin gabe.

Lan, esfortzu, berrikuntza, sorkuntza, ekintzailtza, etengabeko ikaskuntza eta lankidetzaren sustatuko dituen sistema. Laburbilduz, gure hiritargoaren profesionaltasun eta enpleagarritasuna, hori baita XXI. Mende honetako une ekonomiko globalerako erronka.

Era berean, Gernikako Estatutuan eskumen propioa gisa eta EAera oraindik transferitu gabeko enplegurako politika pasiboetan ere eragin behar da. Eskumen hau, politika eraginkorrekin batera, ezinbestekoa da euskal lan harremanetarako markoa errotzeko, eta eskumen hau EAera transferitzea eta bertatik kudeatzea ezinbestekoak dira EAJ-PNVrentzat.

Politika pasiboek langabezi-prestazioa eta langabeen aktibatze prozesua lotu behar ditu. Politika pasiboek "langabea laguntzera" mugatzen den eredutik lan gabeko aldiak prestakuntzan eta lanbidean berregokitzea ekarriko duen eredurako jautzia egin behar dute.

Bigarren bideak negoziaketa kolektiborako sistema ekartzen du gogora, honek ere defizit garrantzitsuak aurkeztu dituelako. Negoziaketa kolektiboak gero eta inguru konplexu, global eta interkonektatuagora egokitu beharra du. Enpresa inguru ekonomikoaren egoera aldagarria egokitzeke tresna izan behar du, zerbait mugatzailea izan gabe. Beharrezkoa eta premiazkoa da, Lan harremanak aurkaketa ikuspegi eta estrategiatik, lankidetzaren, elkarriketa eta interes ezberdinen arteko adostasuna bilatzeko sistemarako bidean aurrera egitea. Horrela baino ezin izango da euskal ekonomiaren etorkizunerako giltzarrietan eragin.

Une ekonomiko eta sozial honek goragoko helburuak bilatzea eta ardurak bereganatzea exijitzen du.

Oraingo marko sozio-laborala "hondoratzeko bidean" dago eta eraldatze sakona eskatzen du.

Edozein kasutan, errealitateari begiratu behar diogu, eta argi izan hurrengo urteotan lanpostu askok ezegonkor izaten jarraituko dutela eta soldata askok baxu izaten jarraituko dutela. Gainera, gizarte prestazioak ondo neurtu eta egiazko beharrianetara egokitu beharko dira. Honek guztiak gure barne eredu ekonomikoaren birformulazioa suposatzen du, garai berrietara egokitua.

Langile guztiek enpresetako informazioan, kudeaketan eta emaitzetan parte hartzea sustatu eta bermatuko duen eredurako bidea egin behar dugu. Eredu honek onurak ekarri ditu ezarri den herrietan, eta parte hartu duten eragileen artean; eta beste eredu batzuek baino gehiago bermatuko du solidariotasuna, lanpostuak krisi garaian mantentzea, lehiakortasuna ahalbidetzen duen motibazioa eta langileek enpresarekiko duten konpromisoa.

Danimarka, Holanda, Alemania eta Austria ere izan dute erronka hori aurretik etorri diren urteotan. Marko soziorlaborala berregiteko lan kolektiboari ekin diote, eta gaur herri askoren eredu dira. Esperientzia arrakastatsu historikoak metatzen dituzte eta Euzkadik horietatik ikasi ahal du.

Aurkaketarako baino, lankidetzarako garaia da, denon arteko lana egiteko, eztabaida arduratsu eta eraikitzaileko, egin behar dugun berrikuntza sozial handiaren diseinu eta garapenean asmatzerik izan dezagun: enplegurako marko berria XXI. Mendeko gizartearentzat.

## **6.- Euzkadi munduan**

Denbora berrirako hasieran, munduak Euzkadi berriro deskubritzea behar dugu, nazioaren kontzertuan toki propioa izatea bilatzen duen errealitate bat, nortasun bat, kultura propio eta berezitua ezagutu eta uler dezan. Testuinguru honetan, Euzkadiren nazioartetzea ekidin ezin den nazio erronka dugu.

Nazioartean aitortuak izateko eskubideari, gure izateari eta munduan egoteari eutsio dion erronka, munduan izateko eta egoteko eskubidea. Horretarako, ezinbestekoa izango da urteotan Euzkadi bortxakeriarekin lotu duen estereotipoa baztertzea. Herri gisa zama astuna jarri digun estereotipoa, gure gaitasunak era ezkorrean markatu ditu, benetako Euzkadi, bere berezitasuna, bere hiritarren borondatea, historia eta tradizioak, Herri honek dituen ahalmenak ezagutzea eragotzi izan du.

Euzkadik herria nazioartean kokatzeko estrategia zehaztu behar du parametro guztietan: erakundeetan, kulturean, gizartean, hezkuntzan eta ekonomian. “Eman ta zabal zazu munduan fruitua”.

Euzkadi, bere ezagutza eta aitortzan, esparru ekonomiko globalean, mundu kulturean etorkizuna duen eta berrikuntzan, solidariotasunean, hezkuntzan, giza garapen jasangarrian erreferentzia izan nahi duen herriarekin lotu behar da, non giza faktorea ezagutza eta gainerako gaitasunen indargunea izango den.

Nazioartean Euskal Herria eta bere eskubideak termino sozial eta politikoan aitortuak izateko asmoan oinarritutako estrategia behar dugu. Gure nortasuna, kultura eta euskara nazioartean kokatzeko estrategia. Era berean, ekonomia eta enpresa iazarako estrategia; aliantza publiko-privatu estrategikoak garatuta, gure enpresei lagunduz, Euzkadiren lehiakortasuna bermatzen eta bultzatzen lagunduko duten sare instituzional eta sozialak eratuta.

Nazioartean euskal produktuaren kalitatea bermatzeko estrategia sustatu beharra dugu. Kalitatea eta gure herriarenak berarenak diren seriotasun eta konfiantza baloreak. Gure industrietako produktuetara, gure produktu turistikoetara, gure zerbitzuetara eta gure “jakin eta egin” instituzionalera aplikatu dadila. Gure kanpo ekintzaren ezaugarria izateaz gain, ondo egiten den lanaren aldarria eta etengabe hobetzeko exigentzia izan dadila.

Instituzionalki homologatutako nortasuna, parametro objektiboen bidez berrikuntza, kalitatea, jasangarritasuna, kaudimen ekonomikoa eta nortasun nazional irizpideak islatzeko balioko duena.

Halaber, Euzkadi sendotasunez kokatu beharra dugu. Horretarako, ezinbestekoa izango da gure ekonomiarako merkatu estrategikoetan, Euzkadiren ordezkariak izatea. Ordezkaritza

hauek, ordezkartza instituzionaleko izaera izateaz gain, izaera ekonomikoa izango dute, gure enpresen zerbitzura.

Aldi berean, Europa eta nazioarte mailan presentzia handiagoa beharko dugu, eta horretara zuzenduko dugu gure ekimen politikoa; hau da, herri eta nazio gisa, gure eskumen eta interesei eragiten dieten araudi eta neurriak eztabaidatuko diren foro guztietan egoteko ekimena garatuko dugu.

Gure erabakia da, Euzkadik munduan presentzia sendoagoa izatea.

## **7.- Hurbiltasuna, komunikazioa, parte hartzea, gardentasuna eta ustelkeriaren kontrako borroka.**

XXI. mende honetako hasieran agerikoa da, jarrera publiko zein pribatuak kultura politiko berrira egokitzeko dugun beharra.

Gaurko gizarteek beren ordezkari politikoei eta alderdi politikoei gobernatzeko eta hiritargoarekin komunikatzeko era berria eskatzen diete; arazoak konpontzeko era berria eskatzen dute, eta oso zorrotzak dira beren estandar etikoetan.

EAJ-PNVk osoko konfiantza du euskal gizartearen heldutasunean eta bizitza politiko, sozial eta ekonomikoaren garapenean erabakitzeko eta parte hartzeko duen gaitasunean. Lehen hilaran, marko integraletik, Alderdi hau egongo da beti, demokrazia parte hartzailearen eta 2.0. politikaren ikuspuntu razional eta progresibotik.

EAJ-PNVk lideratu behar du Euzkadin kultura politika hori. Xede horrekin, defendatu eta praktikan jarriko dugu politika egiteko modu berria, begirunez eta inposaketarik gabe. Espainiar Estatuari exijitzen badiogu, are arrazoi handiagoz ezarriko ditugu hemen politika hori osatzen duten baloreak: elkarriketa, integrazioa eta adostasuna, gardentasuna eta ustelkeriaren kontrako borrokarekin batera.

Zentzu honetan, konpromiso gehiago geureganatuko ditugu, are zehatzagoak arauetan islatzearekin, interes partikularrik edo talde interesik Alderdi honen bizitza organikoan eraginik izan ez dezan, esparru bakoitzeko mailarik gorenetao burukide eta politikoengandik guztiz aparte egon daitezen.

Alderdikide guztiek eta Euzko Alderdi Jeltzalea osatu nahi duten guztiok berretsi eta gure egiten ditugu jarduera publikoaren irudi ona eta hiritarrek ordezkartza politikoan duten konfiantza berreskuratzeko konpromiso etiko guztiak.

Orain arte egin izan denetik harago, gardentasuna eta parte hartzea sustatuko dugu, gure erakunde legegile eta betearazleak hiritargora irekitzea. Egiatzko demokrazia, demokrazia garden eta partehartzailearen sinonimoa da. Gardentasun eta parte hartze gorena hobeto informatuta dagoen eta aktiboagoa den eta konpromiso handiagoa duen hiritargoarentzat. Iritzia emateko, proposatzeko eta erabakitzeko gaitasunarekin.

## D) GEROA LANTZEN

EAJ-PNVren konpromisoa da Euzkadik 2015erako izango dituen ardura eta erronkak, euskal gizarteak egunetik egunera eta egunero planteatzen dituen eskari eta beharrianetarako erantzunekin bideratzea.

Alderdi politiko bat bere ideiek, pertsonak eta erakunde osoak osatzen dute. Horregatik, Batzar Nagusira begira, EAJ-PNVk “Geroa Lantzen” agiria aurkeztuko du, eta bertan bilduko ditu Alderdiak proposatzen dituen erantzunak eta sektorekako konpromisoak.

Gure helburua, gizarte eskariak ezagutzea eta ulertzea ahalbidetu digun erritmoa mantentzea da, aitzindariak izatea proposamenak egiteko eta praktikan jartzeko orduan.

Gure barnean gordetzen dugun ezagutza eta esperientziak etorkizunera begiratzeko aukera ematen digu, geroari begiratzeko eta egoera ekonomiko, sozial eta kulturalaren inguruko diagnosa egitea, Herri gisa izango ditugun erronkei aurre egiteko erantzunekin batera.

Ekimen politikoa da EAJ-PNVren motorea, ekonomikoki lehiakorragoa izango den gizartearen eraikuntzarako proposamenak eta egitasmoak sustatzen dituena, lehen mailako hezkuntza eta osasun sistemarekin, sozialki elkartua eta arlo publikoan gobernatze lan ona egiten den bermearekin.

Hauek dira “Geroa Lantzen” agiriaren giltzarriak. Bere oinarritik, Euzkadiren lidergoarekin konpromisoa hartu duen Alderdiaren erantzuna.